ARANTZAKO HERRI-LURRETAKO 2026-2027 KANPAINAKO MENDIKO LANEN ETA AZPIEGITUREN KONTRATAZIOA

UNITATE KUDEATZAILEAREN TXOSTENA

ESKAINTZAK AURKEZTEKO DATA LUZATZEA

- **TOKIA:** Arantzako Herriko Etxea.
- **EGUNA:** 2026/09/25
- **ORDUA:** 11:50
- **KONTRATUAREN XEDEA:** Arantzako herri-lurretako 2026-2027 kanpainako mendiko lanen eta azpiegituren kontratazioa.
- **PROZEDURA:** Irekia.
- **TRAMITAZIOA:** Aurreratua.
- **UNITATE KUDEATZAILEA:** Nagore Madariaga Iriarte, Arantzako Udaleko idazkaria

Arantzako herri-lurretako 2026-2027 kanpainako mendiko lanen eta azpiegituren kontratazio lizitazioaren iragarkia 2026ko irailaren 11n argitaratu zen Nafarroako Kontratazio Atarian. Bertan zehaztu zen eskaintzak aurkezteko azkeneko eguna 2026ko irailaren 26ko 23:59 izanen zela (larunbata).

Halaber, ikusi da lizitatzaileek beraien eskaintzak aurkezteko plataforma berriki aldatu dela PLENA 2.0 sistemara. Baliteke zenbait lizitatzailek zailtasunak izatea beraien eskaintzak aurkezteko (plataforma berriaren ezagutza falta, akats informatikoak, etab.). Ondorioz, lizitatzaileek eskaintzak aurkezteko euskarri informatikoa izanen dutela ziurtatzeko, eskaintzak aurkezteko azkeneko eguna hurrengo egun baliodunera luzatzea gomendagarria dela ikusi da (irailaren 28ko 23:59, astelehena). Horrela, proposamenak aurkezteko ahalik eta laguntza tekniko gehien eman nahi da, eta, era berean, ahalik eta lehia handiena ahalbidetu, Kontratu Publikoei buruzko apirilaren 13ko 2/2018 Foru Legearen 2. artikuluan ezarritako printzipioak betez.

CONTRATO DE TRABAJOS FORESTALES E INFRAESTRUCTURAS A REALIZAR EN EL MONTE COMUNAL DE ARANTZA EN LA CAMPAÑA 2026-2027

INFORME UNIDAD GESTORA

AMPLIACIÓN DE PLAZO PARA LA PRESENTACIÓN DE OFERTAS

- ***LUGAR:*** *Casa Consistorial de Arantza.*
- ***FECHA:*** *25/09/2026*
- ***HORA:*** *11:50*
- ***OBJETO DEL CONTRATO:*** *Contrato de trabajos forestales e infraestructuras a realizar en el monte comunal de Arantza en la campaña 2026-2027.*
- ***PROCEDIMIENTO:*** *Abierto.*
- ***TRAMITACIÓN:*** *Anticipada.*
- ***UNIDAD GESTORA:*** *Nagore Madariaga Iriarte, secretaria del Ayuntamiento de Arantza.*

El 11 de septiembre de 2026 se publicó en el Portal de Contratación de Navarra el anuncio de licitación del contrato de trabajos forestales e infraestructuras a realizar en el monte comunal de Arantza en la campaña 2026-2027. En ella se especificaba que la fecha límite de presentación de ofertas sería el sábado 26 de septiembre de 2026 a las 23:59 horas.

No obstante, se observa que la plataforma para la presentación de sus ofertas por parte de los licitadores se ha modificado recientemente al sistema PLENA 2.0. Algunos licitadores pueden tener dificultades para presentar sus ofertas (falta de conocimiento de la nueva plataforma, errores informáticos, etc.). En consecuencia, con el fin de asegurar que los licitadores tengan a su disposición el soporte informático para la presentación de las ofertas, se considera conveniente ampliar la fecha límite de presentación de ofertas al primer día hábil siguiente (23:59 horas del día 28 de septiembre, lunes). De este modo, se pretende prestar la mayor asistencia técnica posible para la presentación de proposiciones y, asimismo, posibilitar la mayor concurrencia posible, dando cumplimiento a los principios establecidos en el artículo 2 de la Ley Foral 2/2018, de 13 de abril, de Contratos Públicos.

UNITATE KUDEATZAILEA,
Nagore Madariaga Iriarte